

Labayruko Ohorezko Laguntzailea

izendatzeari erantzuna

Eskerrak emon gura deusedaz Adolfo Arejita, Labayruko zuzendariari, Igone Etxebarria, zuzendari ordeari, eta Artezkaritzako kideei. Niretzat da ohorea Labayruko Ohorezko laguntzaile izendatzea.

Pentsatzen neban honeek sariak zaharrai emoten jakiezala eta ni ez nintzala hain zaharra hondino. Egunotan irakurten nagoen liburu baten testu hau leidu dot eta aproposa dala uste dot:

Con el paso de los años la percepción de la propia edad se desconecta de la edad verdadera. La edad verdadera sigue avanzando pero la percepción se detiene, no en la juventud, lo cual podría ser fácilmente desmentido, sino más tarde, en torno a los 40 años.

Eskerrak emon gura deusedaz bereziki, zor handia daukadalako eurakaz honeeri: Ander Manterolari lan guztia bere zuzendaritzapean egin dot eta; Gurutzi Arregi, Luisma Peña, Akaitze Kamiruaga, Jon Elorriaga, Izaskun Agirre eta Jabier Kalzakortari, eurengan topau dodalako beti laguntasuna. Eta zelan ez Romarate biai: Maria Luisa eta Edurneri.

Amaituko dot gure herritar Miguel de Unamunoren pasadizo bategaz. Bere andrea, Concha Lizarraga, dakizuenez gernikarra zan eta oso kontaketa politikak idatzi ebazan don Miguelek gogoratzen gaztetan Gernikara trenez joaten zanean nobia bisitatzen. Baina orain hona beste gertaera ezagun bat ekarri gura dot:

Cuando Alfonso XIII le otorgó a Unamuno la Gran Cruz de Alfonso X el Sabio, el escritor comentó: “Me honra recibir esta cruz que tanto merezco”. A lo que el rey respondió: “¿Qué curioso! En general la mayoría de los galardonados aseguran que no se la merecen”. A lo que el escritor replicó: “En el caso de los otros, efectivamente no se la merecían”.

Holan dalakoan, eskerrak emoten deusedaz danori ni bigarren kasuan egonda fikzio bat egin dozuelako lehenengo taldean sartzeko. Eskerrik asko.

Segundo Oar-Arteta
Bilbao, 2018-03-21